

OIARTZUN / 'Ramon Zulaikaren kontuak' ostegunean aurkeztuko da liburutegian

2009ko abuztuaren 4ean hil zen Ramon Zulaika Sigüenza idazlea (1929-2009). Jaiotzez donostiarra zen, gaztetan Madrilen arkitektura eta zinea ikasi zituen, musikazale (Aita Donostiaren iloba zen), antzerkigile eta zinemagile ere izan zen.

Bere curriculum-a honela laburbil dezakegu: besteak beste, zinegilea, antzerkigilea, kronista (El Norte de Castilla-n eta EL DIARIO VASCO-n milaka kronika idatzi zituen), XX. mendeko bigarren erdialdeko euskal intelektuaren Academia Errante, Donostiako 'Espelunca' tertulietako kide eta sustatzailea, eta batez ere idazlea izan zen: 17 bat liburu argitaratu zituen, beste horrenbeste gutxienez zentsurapean argitaratu gabe geratu zen eta beste hainbat ipuin, artikulua, antzerki-obra eta abar idatzi zituen.

Xabier Susperregik eta Xosé Estevez-ek idatzitako 'Ramon Zulaikaren Kontuak / Cosas de Ramón Zulaica' liburua aurkeztuko da, Ramon Zulaika idazlearen bizitzaren eta lanaren isla izan nahi duena. Besteak beste, Xosé Estevez, Juan Garmendia Larrañaga, Felix Maraña, Palmira Sullivan, Joxe Mari Isasa, Gau Eskola taldeak eta Enrique Samaniegok eginiko bere bizitzari buruzko aipamenak biltzen dira; baita Xabier Susperregik egindako biografia bera ere.

Bere obra, bibliografian jasota geratzen da, baita ere, aukeratutako bere literatura-kolaborazioetan. Eta bibliografia era egokian islatzeko, nola utzi aipatu gabe, garai haietako zentsuragatik, isiltasunez betetako urte gogor haiengatik, beste hainbat idazlan bezala, argia ikusi gabe geratu ziren hiru eleberri hauek ere: 'Este año no hay primavera' (Tetuan, 1957), 'Perdónales Señor' (Madrid, 1958) y 'Ese pedazo de carne' (Donostia, 1959). Hiru istorio sendo eta mamitsu, garai hartako zinezko dokumentuak, azkenean, argitara orain emango direnak eta zalantzarik gabe, Zulaika XX. mendeko bigarren erdiko euskal nobelagile onenen artean kokatzen dutenak.

Liburuaren aurkezpena, ostegunean, 11:30ean egingo Oiartzungo Manuel Lekuona Udal Bibliotekan. Ondoren, plaka bat inauguratuko da nobelagilearen omenez, berak gehien maite zuen herriko txokoetako batean; hilerri zaharrean, 'Zimitiyuan', norbaitek gaizki jarritako eguzki-erlojuaren ondoan; betirako gogoratua izango den lekuan.

Aldi berean, autorearen beraren lanak eta bere bizitzaren hainbat irudiren argazki erakusketa inauguratuko da Bibliotekan bertan.